

1.UNITATE DIDAKTIKOA: Kontsumo tailerra			
INPLIKATUTAKO ARLOAK: Natura, Gizartea eta Kultura Ingurumenaren ezagutza			
GAIA: Ingurumenaren zaintza eta kontsumo arduratsua	MAILA: LH 5-6	SAIO KOPURUA: 3 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. -Bigarrena zuzeneko kontsumoa lantzea. -Hirugarrena zeharkako kontsumoa lantzea.	
IKAS-EGOERAREN MARKOA			
Testuingurua: Gure egunerokotasuna zuzenki edo zeharka kontsumitzean datza, horretara bultzatzen gaitu gizarteak. Kontsumo mota ezberdinez inguratuta bizi gara, sarritan ohartu ere egiten ez garenetaz. Zenbat litro ur behar dira galtza batzuk egiteko? Nondik dator erabiltzen dugun energia? Beharrezkoa ez den zenbat plastiko erosten dugu supermerkatuetan? Ura, energia eta hondakinak kontsumoaren ardatzak dira.			
Abiapuntua: Arazo larri baten aurrean gaude: gure planetak mugak ditu. Gaur egungo gizarteak bultzatzen duen kontsumo mota hau jasanezina da eta horren ondorioak gure azalean pairatzen hasiak gara, hala nola, klima aldaketa eta lehengaien agortzea. Ba al dago modu jasangarriagorik kontsumitzeko?		Azken ekoizpena: Taldeka etxean edo ikastetxean egiten duten ur, energia edota hondakin kontsumoaren egoera aztertu, ahulguneak identifikatu eta murrizteko irtenbide bat proposatu. Ikasturtean zehar aukeratutako irtenbidea praktikan jartzeko konpromisoa hartu beharko dute.	
PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA			
Txingudiko Zerbitzuak eskualdeko ur hornidura eta hondakinen kudeaketaz arduratzen dira, eta horri esker biztanleko eguneko kontsumoa kalkulatzeko da. Kontsumitzearen ideia gizarteak gaztetatik txertatzen digu eta horri aurre egitea zaila da. Horregatik kontzientzia ezinbestekoa da, eta lehenbailen kontsumo neurrigabeak ingurumenean eta gizartean dituen ondorioak ulertuz gero, errazagoa izango da neurriak hartu eta jarrera aldatzea.			
Funtsezko konpetentziak: STEM eta HK			
Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
STEM5. Osasuna eta ingurumena babesteko ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez eta kontsumo arduratsuen printzipioak aplikatuz. HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harremanak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da.	5. Natura, gizarte eta kultura ingurune ezaugarriak identifikatu eta aztertzea, eta haien arteko harremanak ezartzea natura ondarearen balioa ezagutu eta kontserbatzeko erabilera arduratsu eta iraunkorreko ekintzak ekiteko. 6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak aztertzea eta ohitura iraunkorrak praktikan jartzea.	5.4. Natura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez. 6.1. Giza interakzioaren kausak ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko. 6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, taldean soluzio arrazoituak emanda.	C. Gizarteak eta lurraldeak. 2. Gizarteak denboran zehar. -Natura ondarea ondasun eta baliabide gisa, haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa. 4. Kontzientzia ekosoziala -Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak. -Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. -Garapen jasangarria. Giza jarduera espazio eta baliabideen ustiaketan. -Eredu ekonomiko berri bat: ekonomia zirkularra. Kontsumo arduratsua.

			-Bizitza jasangarria: planetaren mugak eta baliabideen agortzea.
HELBURU DIDAKTIKOAK			
1. 2. (...)			
METODOLOGIA			
Printzipioak		Antolakuntza	
		Baliabideak	
EBALUAZIOA			
Ebaluazio prozesua:			
Ebaluazio adierazleak: 1. 2. (...)			
Ebaluazio modalitatea:		Ebaluazio tresnak:	